

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiria kobratzea

Zerga hauek 2020ko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean ordaindu ahal izango direla jakinarazten da:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA:

A. Borondatezko epea: 2020ko urriaren 15etik abenduaren 15era.

B. Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA:

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahalko dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

3. GOMENDIOAK:

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak aurrerantzean jakinarazpenak egiteko, Lagrango Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lagran, 2020ko urriaren 1a

Alkatea

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ